

MITXELENA ETA BIDASOALDEKO HIZKERAK

Txomin SAGARZAZU

Koldo Mitxelenak euskal hizkuntzalaritzaz idatzitako lan mordoaren baitan, bada une honetako gure interesa bereganatu duen gai ñimiño bat, ñimiñoa holako produkzio ikaragarri eta aberatsarekin konparatzen badugu. behintzat; baina, beste aldetik, bere inguru zuzeneko hizkerak nola ezagutzen zituen garbi adierazten diguna. Gaia Mitxelenak Bidasoaldeko hizkeren ezagutzarako egindako ekarria da, eta artikulu honetan zehar egingo dena zera da, Mitxelenak zenbait lanetan Beratik Hondarribira arteko hizkerez zer dioen aipatu eta komentatu.

Horretarako oinarritzko iturriak, nahiz eta ez izan sakontasun-maila berekoak, honakoxeak ditugu: "El euskera de Irún", El Bidasoa, 1960.eko ekainak 28; 1972, "A Note on Old Laborudin Accentuation", ASJU, VI (orain Palabras y textos, 1987. 235-244. or.); eta 1977, Fonética Histórica Vasca.

Ez gara esaten hasiko zein zen Mitxelenaren ezaguera aztertzen zuen edozein gairi buruz, are gutxiago euskal hizkuntzalaritzaren historian indarrean egon ziren gaiet buruz ari denean, eta historia horretan bertan ezinbestekoak diren ikertzaileak aipatzen dituenen. Gureari dagokionez, eta erreferentzia gisa, Mitxelenaren abiapuntua, Bidasoaldeko hizkerak aztertzen dituenen, beste askotan bezala -eta iturri idatziez ari gara-, Manuel Larramendiren obra da, andoaindarraren Diccionario Trilingüe eta Corografía de Guipúzcoa.

XIX. mendekoa da hurrengo erreferentzia, 1877.ekoa, Observations sur le basque de Fontarabie, d'Irun, etc., aurren mendeurrena ospatzen ari garen Louis Lucien Bonaparte printzearena. Eta gure mendeko egileenganaino saltuan, ongi erabiliko ditu gerraurreko R.M. Azkueren lana (1930-1931, "Del acento tónico vasco en algunos de sus dialectos" Euskera), eta gerraondoko Nils Holmer suediarrena (1964, el idioma vasco hablado).

Hortaz, garaian garaiko lan zehatzen eta nabarmenenak ekarriko ditu plazara aipatuko duen hizkeraren ezaugarriak ahalik eta hobekien koka ditzagun ibilbide historikoaren baitan.



Iturri horiek eta bere-bereak zituenak erabiliz emango dizkigu Mitxelenak aipatu ditugun hizkeretako buruzko zenbait berezitasun. Nagusienak Fonologia eta Morfologia mailerako dagozkie, eta horietan eztabaida mamitsuak eskaini dituzten **azentua eta genitibo pluralaren kasu-marka** izango ditu aipagarri.

Azentuaz denaz bezanbategian, euskal azentuaren sistema nagusian lau mota bereziko ditu, horien arteko bat Bidasoaren behe aldeko herrietan, Hondarribia, Irun eta Bortziri (Bera, Lesaka, Etxalar, Igantzi eta Arantza), hain zuzen, dagokien azentu mota da.

Bere iduriz, azentu mota hori ez da Oiarzun eta Errentiatik hasita Gipuzkoa aldean egiten dena bezalakoa, ez eta Lapurdin egiten dena bezalakoa (nahiz eta bosgarren azentu mota izendatuko duen Pierre d'Urte lapurtararenarekin kidetasun zenbait izango dituen).

Honakook dira Bidasoaldeko azentuaren ezaugarri nabarmenak: intentsitate alde handia silaba azentudun eta azenturik gabekoan artean. Bigarrena, azentua jasotzen duen silaba luzatzeko joera. Hirugarrena, silaba postonikoen desagertzeko joera handia.

Eta arau nagusia honako hau: hitz isolatuetan eta perpaus laburretan azentua hitzaren bigarren silaban doa, hitzaren luzerari kaso egiten ez zaiolarik, ezta espainolezko azentuaren tokiari ere (nahiz eta arautik kanpo geldituko den azentua lehenengo silaban daraman hitz sail bat, beste hizkeretan ere markatua dena). Adibidez: Akilino, karakola, primábera.

(Puntu honi dagokionez, ohartxo bat Hondarribiko hizkeraz: egun Hondarribian hedatuen dagoen azentu mota ez litzateke deskribaketa horrekin bat etorriko, arruntagoa baita Akilino, karakola, primábera, alarguna, barkaziya, gañikera ('gainera') erakoa).

Garbi dagoen kontua, hala ere, zera da, azentuaren eremua deklinagaia (edo hitzaren basea) dela, eta ez hondarkia, alegia, etxe hitza hartzen bada, itxi.a, itxé.ra, itxé.tik izango dela, azentua kasumarkara pasako ez delarik.

Morfologia mailan, **genitibo pluralaren kasu-marka** bereziak, gizonak, eta honen inguruan izan eztabaidak bereganatu zuten Mitxelenaren arreta. Bonapartek jasoa zuen kasumarkaren jatorritzat emana zen gizon+ak+en formak, Irunen eta Hondarribian bildurikoak, forma zaharra hori zela adierazte-
ra bulkatu zituen zenbait hizkuntzalari.

Forma horietan erastekoak dira Mitxelenak berak adierazten dizkigun Campionen arabarako Berako hauek: osúbkiñ, ardiye-kiñ ("otsoen", "ardiyen" adierazteko). Baina berrikuntza gisara ulertu beharrekoak direla gogoraraziko digu errenteriarrek, beste zenbait ikertzailearen iritziarekin bat etorriaz.

(Bazterreko oharra: Bonaparten garaiaz geroztik genitibo pluralaren markarekin batera oso maiz aipatu izan da Hondarribiko eta Irungo datibo pluralari dagokion forma gizonaki dela. Egun ere bizirik dago Hondarribian, behintzat, gizonaki, gizonakeri bezalakoak aidentzen direlarik.)

Hizkera hauen beste hizkuntz mailetan ere izan zuen ekarri-rik Mitxelenak, hain ugari landu zuen lexiko mailan, esaterako, lezoi hitzaren inguruan; baina gaurkoan, aipatu ditugun obretako erreferentzia zuzen nagusiak bakarrik bildu ditugu hemen.

Beste alor mordo batean bezala, berak jarririk oinarri eta zutabeei kronologikoki atzetik etorri garenok etxe egoki eta txukuna inoiz emango diegulakoan, hainbatetan aipatu zuen *debile principium melior fortuna sequatur* hura ez, baizik eta balako hastapen bikainari goian eutsiko diegulakoan.